

FUNTSEZKO JARDUERAK

Egin behar dugun gauzarik garrantzitsuen gure bezeroei produktu bikaina eskaintzea modu erraz eta merke batean da. Horrela, gure enpresak aurrera egin dezan egingo diren funtsezko jarduerak ondorengoak izango dira:

- Lehenengoz, gure negozioaren punturik garrantzitsuenetarikoa ekoizpena da. Gure irabaziak honen menpe daude, eta orduan oso ondo landu behar dugu gure ekoizpena. Enpresan erlojua muntatu egiten dugu, baina beharrezkoak diren pieza eta teknologia gure hornitzaile ezberdinek hornitzen digute. Modu horretan pieza eta teknologia hori guk ekoizteak baina merkeago irtetzen zaigunez, erlojuan kostuak merketzeko aukera izaten dugu.
- Beste aldetik, erlojuarekin arazoren bat izatekotan, teknikariak eskainiko ditugu, eta hau oso interesgarria eta garrantzitsua da guretzat, zeren eta honekin sortzen dugu konfiantza gure enpresan. Salmenta ondorengo zerbitzu bikain bat ezarriko da, lehenengo 6 hilabetetan dohainik izanik.
- Noski, gure erlojuak eskaintzen dituen prestazio berriak (adibidez kaltzioa neurtzea) erlojua merkatuko erloju onenetarikoen artean egotea baimenduko du.
- Erlojuaren software-a eguneratzeko aukera egongo da. Honi esker gure erlojuak ez dira zaharrak geratuko eta gure bezeroek beti izango dute azkenengo teknologia. Horretarako bezeroak gure web-orrian inskribatu beharko dira.

